

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Iragarkia

Alkatezak 2022ko martxoaren 7an eta 18an emandako 186. eta 249. ebazpenen bidez, hurrenez hurren, honako hau erabaki da:

1. Olaberria Harana Babesteko eta Kontserbatzeko Plan Berezia hasieran onartzea.

2. Plan Berezia jendaurrean jartzea, berrogeita bost egun baliodunez, iragarkiak argitaratuta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Lurralde Historikoan gehien irakurtzen den egunkarian eta Udalaren egoitza elektronikoa.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Sailari eta URA Uraren Euskal Agentziari Planari buruzko txosten sektorialak egin ditzaten eskatzea.

4. Dagozkion administrazio publikoei eta aurrez kontsulta egin zaien interesdunei Plan Bereziari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz kontsulta egitea.

5. Ebazpen hau Euskara Arloari jakinaraztea, Planaren eragin linguistikoa ebaluatzeko txostena egin dezan.

Ez dago ebazpen honen kontrako administrazio errekurtsorik aurkezterik, izapidezko egintza baita.

Eta hau argitaratzen da, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Espedientea bulego orduetan kontsulta daiteke Hirigintza eta Garapen Jasangarriaren Arloan, Kostorbe eraikina, Iparralde hiribidea, 39, Irun eta udalaren webgunean: www.irun.org.

Irun, 2022ko martxoaren 21a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (1684)

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Anuncio

Mediante Resoluciones de Alcaldía n.º 186 y 249, dictadas con fecha 7 y 18 de marzo de 2022 respectivamente, se ha acordado lo siguiente:

1.º Aprobar inicialmente el Plan Especial de Protección y Conservación del Valle de Olaberria.

2.º Someter a información pública el Plan Especial por plazo de cuarenta y cinco días hábiles mediante publicación de anuncios en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, diario de mayor circulación del Territorio Histórico y en la sede electrónica municipal.

3.ª Solicitar la emisión de los informes sectoriales del Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Departamento para el Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Departamento de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco y Agencia Vasca del Agua-URA.

4.ª Someter el Plan Especial junto con el Estudio Ambiental Estratégico a consulta de las Administraciones públicas afectadas y de las personas interesadas que hubieran sido ya consultadas.

5.ª Comunicar la presente Resolución al Área de Euskera para la emisión del informe de evaluación de impacto lingüístico.

La presente resolución no es susceptible de recurso administrativo por tratarse de un acto de trámite.

Lo que se publica a efectos de lo dispuesto en el artículo 95 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.

El expediente se puede consultar, en horas de oficina, en el Área de Urbanismo y Desarrollo Sostenible sito en Edificio Kostorbe, Avda. de Iparralde, 39 de Irun y en la página web del ayuntamiento: www.irun.org.

Irun, a 21 de marzo de 2022.—El alcalde, p.d., el técnico de Urbanismo. (1684)